


## Giza fetuak erabat esterilak direla berretsi dute

Haurdunaldia eta giza fetuaren garapena gero eta hobeto ezagutzen badira ere, bada azken aldian eztabaida sortu duen auzi bat: fetua esterila da edo badu mikrobiomarik? Luzaroan pentsatu izan da fetuak esterilak zirela, eta amaren kanaletik pasatzean jartzen zirela mikroorganismoekin harremanetan aurreneko aldiz. Azken urteotan, ordea, hori zalantzan jartzen duten ikerketak azaldu dira: bakterioak detektatu dituzte giza fetuen hesteetan eta beste organo batzuetan, eta ondorioztatu dute ezinbestekoak direla fetuaren immunitate-sistema garatzeko ezinbestekoak direla ondorioztatu dute.



ARG.: Magnus Manske/Jabetza publikoa.

Inplikazio handiko auzi zientifikoa da, emaitzak ontzat emanez gero, immunitate-sistemaren berrikuspen erabatekoa eskatuko bailuke. Beraz, immunologia, ekologia mikrobiarramicrobiano, gnotobiologia (populazio esterilak aztertzen dituen zientzia), bioinformatika, ugalketa eta beste hainbat esparrutako aditu-talde zabal batek berraztertu egin ditu ikerketa horiek guztiak, eta ondorioztatu du fetuetatik laginak hartzerakoan gertatutako kutsadura besterik ez zela. Hortaz, berretsi dute fetuak esterilak direla berretsi dute. ●

## Baleen tamainaren sekretua geneetan dago



Balea urdina (*Balaenoptera musculus*) da Lurrean inoiz izan den animaliarik handiena. ARG.: NOAA Photo Library.

Lurrean inoiz izan diren animalia handienak dira baleak; dinosauroak baino are handiagoak. Handietan handienak, balea urdinak, 30 metrotik gora eta 190 tona izatera iristen dira. Baina zere arruntek ere 25 m har ditzakete, kaxaloteek 25, xibartek 19, groenlandiar baleek 17, eta balea grisek 15 m. Tamaina horiek, ordea, duela oso gutxitik dituzte. Lehen baleek itsas lehoien tamaina zuten, eta duela 5-10 milioi urte hasi ziren handitzen. Aldaketa horretan gene batzuek zer garrantzia izan duten aztertu dute ikertzaileek.

Zaldietan, behietan eta ardietan (zetazeoen gertuko ahaideak) gorputzaren tamainarekin lotura duten 9 gene aztertu dituzte 19 zetazeo-espezietan. Eta ikusi dute gene horietako 4k hautespen positiboa izan dutela zetazeoen eboluzioan. Gainera, hain handia izateak hainbat arazo biologiko ere ekar ditzake; esaterako, minbiziak izateko arriskua areagotzea. Bada, ikertzaileek ikusi dute 4 gene horiek arazo horiekiko babesa ere ematen dutela, eta horixe izan liteke baleak hainbeste handitu ahal izateko gakoetako bat. *Scientific Reports* aldizkarian argitaratu dute lana. ●